

Oteiza: genio bizia, bihotz ona

Aspaldi ezagutu nuen Jorge Oteiza nire lanarengatik, Orion. Bera ama han bizi zen, hemendik goazela, zubia pasa eta etxe handi batean. Han egoten zen bere amarekin. Arantzazun apostoluekin lanean ari zenerako ezagutzen nuen. Behin gogoratzen naiz norbaitek galdetu ziola ez zirela apostoluak bereizten eta erantzun zion. “Ez kezkatu, jarriko diet izena, bi abizenak, helbidea, telefonoa eta dena. Lasai joan zaitez!”. Gero Altzuzan ere ezagutu nuen. Ez dakit zergatik erabaki zuen bere fundazioa han jartzea, maitasun handia zion. Pena da Gipuzkoan ez jarri izana.

Zarautzen zorte ikaragarria izan zuen ondoan bizi zuen familiarekin, Begoña eta Jose Antonio. Ezker-eskuin bizi ziren: Asko lagundu zioten, edozein tokitara joateko, zer behar zuenean emateko, otorduak ere bai, klinikan ingresatuta egon zenean...

Zoritzarrez Oteizak bererekin beti iskanbila ematen zuen eta fundazioan ere izan da eta izango da. Pena bat izan da. Hemen egurra besterik ez zioten eman. Lagun banaka batzuk bazituen Gipuzkoan, baina Eusko Jaurlaritzarekin borroka handia izan zuen. Donostian berak nahi zuen hilerria jartzen ez ziotelako utzi ere oso haserre zegoen. Oteizaren estiloa zen.

Tolosako eskulturen ibilbide iraunkorra berekin sortu genuen CITEk 25 urte bete zituenenean batzorde bat sortu zen. Ni ez naiz sekula izan CITEkoa ez beste inongoa, ez naiz horrelako elkarte zalea.

Antxon Elozegi, Mixel Perales, Iñaki Etxeberria, Iñaki Epelde, eta bostok, batzorde bat osatu genuen. Gasteizera joan ginen harekin hitz egitera, Javier Santxotena eskultoreak zuen Portalon jatetxera. Proposatu genion gure ideia eta bere eskultura bat Tolosan jarri nahi genuela esan genion. Berak erantzun zuen bakarrik ez zuela nahi, taldean nahi zuela egitea, eta ibilbide moduan. Berak esan zituen artisten izenan: Ricardo Ugarte, Nestor Basterretxea, Juan Ramon anda eta Javier Santxotena. Orain arte betetzen ari gara bere nahia, errespetatu ditugu izen horiek, lehen hiruen obrak jarrita daude Tolosan eta Santxotena bakarrak falta da. Ugarterena eta Oteizarena bateratsu jarri genituen. Ugartek asko lagundu zigun Atauts jartzen, eskultura

horren zati bat harrena da, gustatzen zitzaiolako. Esker ona dugu harekiko. inauguraziora ez zen etorri, baina non jarri berak esan zuen. Herrian ibili zen eta toki horixe aukeratu zuen. Agiri bat egin genuen, Tolosari saldu ziola agertuz, hori ziurtatuz. Gero Oteizarekin eztabaida batzuk eta sortu ziren, zeharo haserretu zen, eskultura gaizki zegoela eta eraman egingo zuela esaten zuen. Hemendik eraman nahi zuten alkate batzuk baziren.

Tolosan ez zitzaion beste munduko ongietorririk egin batzuen aldetik, lotsagarria izan zen, itsusia. Gauza bat da arte abstraktoa ez gustatzea. Nire arte oso figuratiboa ez zait gustatzen, baina zerbait figuratiboa dena bai. Oteizak baditu honelakoak. Orain ez da inor Atautsen aurka hasten. Gero hasi ziren beste udal batzuk mugitzen eta eskulturak jartzen: Zarautz, Azkoitia, Zumarraga, Donostia... baien Tolosa izan zen lehena. Nire ustez herriarentzat lorpen oso ona izan zen. Lekua ez dela aproposa? Hori beste gauza bat da. Nahi baduzu beste leku batena jar ezazu, baina Tolosan gelditzea nahi genuen. Tolosako aberastasun bat da. Ordurako Txillidaren Lizardiren leihoa hemen jartzeko proiektua bazegoen, nahiz eta beranduago jarri, Aranburu Jauregiaren inaugurazioarekin batera egiteko. Orduan Txillida eta Oteizaren eskulturak zituen herri bakarrenetakoa izango zen. Orain Donostia era bai. Pixkanaka hasi ginen eta ari gara osatzen. Maila bati eutsi nahi genion, edozein aukeratu gabe. Orain Udalak hartu du eskulturen ibilbidea bukatzearen ardura.

Tolosan beste eskultura bat ere badauka Oteizak. Olarrainen dagoena Txabi Etxebarrietaren omenez, bera hil zuten lekuan kokatuta. Maitasun handia zion Etxebarrietari. Arantzazuko Piedaden oinetan etzanda dagoen pertsona bera da. Irudi horren miniatura oparitu zidan berak, idatzi batekin. Oso pieza polita da. Bera etorri zen Olarraina eta bere kasa jarri zuen eskultura hori. Orain txukundu egin behar da, gaizki dago, oso itsusi, burdin batzuekin eta. Behar den bezala jarri behar da.

Oteizatik gehien gustatzen zaidan lana Arantzazun dago. Genio bat zen. Julio Caro Baroja jakintsua zen, Nobel Saria izan zitekeen. Baina genio, Oteiza zen. Bi zentzuetan. Genio bizikoa ere bazen, baina bihotz onekoa.

Harreman sendo eta ona izan nuen berarekin. Hemen behin baino gehiagotan izan zen. Lagun gehiago era bazituen Tolosan. Askotan joaten ginen Zarautza harengana. Adiskidetasuna mantendu nuen beti. Nire emaztea Maria Juanita asko maite zuen. Bera izan zen emaztea hil zenean doluminak eman zizkidan lehen pertsona. Azken aldiz Poliklinikan ikusi nuen, gaixo zegoela bisitatu nuen, duela hogeita bat egun. Oso gaizki ikusi nuen. Bisita bat baino gehiago egin nizkion. Aurretik, abenduaren 20ean egon nintzen berarekin bere etxean.

Denbora gutxian bi lagun joan dira: Oteiza eta Jose Mari Satrustegi. Hau etxekoa zen, asko etortzen zen, zilarrezko eta urrezko ezkontza ezteietan berak eman zuen elizkizuna, emaztea hil zenean bera etorri zen kontzelebrazera.

Oteiza: genio bizia, bihotz ona / Juan Garmendia
Larrañaga. - *Hitza Tolosaldeko eta Leitzakoa*. - Tolosa :
Tolosa Herria Hedabideak. - (2003.04.13), 3 orr. - OC.
T. 9, p. 643-645